



MARTIN ALDAYA OLASAGASTI jaunak, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko urriaren 4an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Garbitania Zero Zabor S.M.k Hernanin gaikako bilketan eta kale garbiketa zerbitzuan jasotako errefusaren transferentzia zerbitzua kontratatzeko behin behineko esleipena erabakitzea.

Aipatu zerbitzua kontratatzeko espedientea 2019ko abuztuaren 6an egin zen Administrazio Kontseiluak (Kontratazio organoa) onartu zuen. SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren iragarkia 2019ko abuztuaren 16an argitaratu zen Garbitaniaren web gunean eta Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratzailearen profileen.

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan ondorengo bi eskaintzak jaso ziren:

- 1) Traeco Medioambiental S.L.
- 2) CESPA (*Compañía Española de Servicios Públicos Auxiliares*) S.A.

Eskaintza horiek kontratazio mahaia osatzen duten ingurumen teknikariak, zerbitzu juridikoak, gidari-biltzaileen koordinatzaileak, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak, aztertu dute.

Lehenengo eta behin pleguetan eskatzen diren administrazio dokumentuak behar den bezala aurkeztu diren aztertu da eta ondoren dokumentazio teknikoaren gutun azalak irekitzera jo da.

Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, plegu tekniko eta administratiboetan adierazitako puntuak baloratu dira. Balorazio hori balio iritzien bidez egin da eta txostenean adierazten den bezala, Traeco Medioambiental S.L. enpresaren eskaintza baztertua izan da eskatutako baldintzak bete ez dituelako. B gutun-azalaren edukiaren gehieneko puntuaketa 30 puntukoa izanik, CESPA enpresak lortutako puntuaketa ondorengo da:

Eskaintza	Instalazioen eta erreserbako ibilgailuen deskribapena eta pertsonalaren prestakuntza					Zerbitzuaren deskribapena, antolaketa, jarraipena eta lan metodologia	PUNTUAZIOA GUZTIRA
	Ibilgailuen zarata maila (erreserbakoa eta isurketen aurrean erabili beharrekoak)	Gidarien formakuntza gidatze efizientean	Erreserbako ibilgailuaren ezaugarriak	Erreserbako kontainerraren ezaugarriak	Isurketen aurrean erabili beharreko ibilgailuaren ezaugarriak		
1.	-	-	-	-	-	-	-
2.	2	4	2	2	2	9	21

Ondoren, modu automatikoan kuantifika daitekeen dokumentazioaren balorazioa burutu da, Plegu Administratiboetako 16. atalean zehazten den moduan. Atal honi 70 puntu dagozkio gehienez, eta eskaintako prezioari eta ibilgailuaren isurketa eta zarata mailari dagokion puntuaketa ondorengoia izan da:

Eskaintza	Eskaintza ekonomikoaren puntuaketa	Ibilgailu titularren erregai alternatiboen erabilera	Ibilgailu titularren isurketa maila	Guztira
1	-	-	-	-
2	60	0	0	60

Oro har puntuatua izan den eskaintzaile bakarrak pleguetan eskatutakoa betetzen ote duten aztertu da. Azterketa horren ondorioz ziurtatzen da CESPAn enpresak betetzen dituela eskatutako baldintzak eta lortutako puntuazio orokorra ondorengoia izan dela:

Eskaintza	Balio iritzien bidez lortutako puntuazioa	Modu automatikoan lortutako puntuazioa	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	-	-	-
2	21	60	81

Eskaintza egokia izan dela kontuan izanik, kontratazio mahaiak Administrazio Kontseiluari CESPAn (*Compañía Española de Servicios Públicos Auxiliares*) S.A. esleipenduntzat hartzea proposatzen dio.

Gauzak horrela, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak 2019ko urriaren 4an burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adosten ditu:

Lehenengoa.- Hernanin gaikako bilketan eta kale garbiketa zerbitzuan jasotako errefusaren transferentzia zerbitzuaren kontratua ondorengo enpresari esleitzea adierazten den salneurrian (BEZ kanpo).

Eskaintzailea	Enpresa	Puntuaketa orokorra	Eskaintako prezioa bidaia bakoitzeko
2	CESPA S.A.	81	70,64EUR

Bigarrena.- Aipatu enpresari erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek (administrazio klausula partikularren 19. puntuan jasotzen direnak) aurkeztu ditzan eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:

- Enpresariaren jarduteko gaitasun osoa ziurtatzen dutenak.
- Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.

- Eskatzen den kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituztenak.
- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitzaera konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- EJZn kontratuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken erreziboaren kopia aurkeztu beharko duelarik.
- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitzaera konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- Laneko arriskuren prebentzioari dagozkion dokumentuak.
- Seguruen dokumentazioa.
- Deskribatutako hondakina garraiatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Lurralde Politikako sailak Hondakin eta Lur kutsatuen 22/2011 Legean jasotako aktibitateak aurrera eramateko beharrezkoak diren baimen eta erregistroen jabetzan dagoela ziurtatzen duen agiria.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratuak gauzatu ditzan.


10 laneguneko epealdiaren barruan CESP A S.A.k eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu ditu.

Horiek horrela, eta Administrazio Kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitzat ematen da eta CESP A S.A.k enpresari jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaio.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2019ko urriaren 18an

O.I.



LEHENDAKARIA



IDAZKARIA